

ZENBAT BURU

Arnaitz Gorriti

ERREPORTAJEA

Gillermo Garate,
alkatearekin
elkarrizketa

GEHIGARRIA

KiliBARREN

UDALETXETIK

Eulogio Perez
zenegotziaren
dimisio eskaera

BERBETAN

Angel
agirregomezkorta
Primitibanl saritua

Ongarriren

Bestelako Zinea. 2.
zikloaren hasiera

BARRREN

2000ko martxaaren 24a
VIII. urtea - 314. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Angel Agirregomezkorta
338 milioi 'Primitiban'

"Dirua badezu, danak la

aera zaharra)

10 11 bZ tyk,

t1 ZITET X112t



Olasope, 2 Tel.: 943 74 3i 85

martxoak 28an, asteartea

zatoz Olasoko jatetxe berriaren

INAUGURAZIORA

1 9:00etatik 21 :00etara



Denok zaudok y/oKbidatuta!

Olaso industrialdearen sarreran



ARNAITZ GORRITI

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

Nor da zorduna?

Ez pentsa, ni ere askotan nago galdera hau nire buruari egiten. Noski, zeregin hoberik duenak ez du alerrikako galderarik egiten denborarik galduko. Hala ere, BARREN irakurtzen dugunon artean ba ote dago inor mundua Maltzagan amaitzen ez dela ziur dakienik? Hau da, ba al dakigu mundua oraindik ere borobila dela? Ba al dakigu El Ejidon jazotakoa hemen ere berdin-berdin gerta daitekeela? Ba ote dakigu zer ari den gertatzen "Hirugarren Mundua" deritzon horretan? Ba al dakigu beren arazoan iturburu nagusienetakoa Lehen Mundua dela; hots, gu garena?

Sentitzen dut, emozionatu egin naiz. "Bakoitzak norbere astoari esaten dio arre" esaera zaharra denok ezagutzen dugu. Badakigu gure Euskal Herri honek mila eta bat arazo dituela beste bat bizkarrreratu gabe ere. Dena den, batzuetan kanpora begiratzea ez dator hain gaizki ere. Nor da zorduna? Nola liteke 'Hirugarren Munduak' urtetik urtera gero eta kanpo zor handiagoa sufritzea etengabe ordaintzen jarraitzen duten bitartean? Zer da zor digutena?

Jendea ez da hain itsua, ezta hain kru-

dela ere. Igande honetan amaitu da "Kanpo zorra kitatzeko kontsulta soziala". Ia lauhun herrik hartu dute parte kontsulta horretan estatu osoan banatuta. Hainbat Gobernu Kanpoko Erakunde eta % 0,7 Plataformaren lanari esker, martxoaren 12an eta 19an egin ahal izan da kontsulta. Bertan, makina bat herritarrek beren iritzia eman du kanpo zorraren eta 'Hirugarren Munduko' estatuen inguruan egin zaizkien galderei erantzunez. Ziur ote den hori ez da argi, baina botua 2 milioi pertsonak eman dutela uste dugu. Eskerrik asko botua eman duzuen guztioi.

Orain zer? Kontsultak ezin du 'Hirugarren Munduaren' arazorik berez kon-

pondu. Jendearen, gure lanaren ondorioz, lortu behar dugu 'Hirugarren Mundua' deitzen dugun hori behin betiko ezabatzeko. Gure lanak lortuko du mundu hau pertsonen bizileku bihurtzea. Hori lortzen badugu, gainontzeko arazoak ere konponduko ditugu. Nor da zorduna? Gizartea. Zer zor dugu? Gizatasuna. Zer da mundua? Guztion bizilekua, non mugak jadanik esistitzen ez diren. Has gaitezen, beraz, pertsona izaten behingoz.

**"Nor da zorduna?
Nola liteke lifirugarren
Munduale urtetik urtera
gero eta kanpo zor
handiagoa sufritzea
etengabe ordaintzen
jarraitzen duten bitartean?
Zer da zor digutena?"**

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

tx 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila:

barren@topagunea.com

Helbide informatikow

www.ihardun.comtbarren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko izarra

LAeuNrrzuLEA Elgoibarko Udala
KAZETARIAK I rati Agirreazaldegi,

Jon Eugi, Asier Orbea

PUELIZITATEA Andoitz Agirregomezkorta

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KoLABonarzaiLEAx Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrahaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maile Vallejo, Lourdes Zublaurre.

AzALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburitik

BANAKETA ARouRADuNA Imanol Larrañaga

EUSKARA ZUZENTZAILEA Ibon Arriola

INPRimateGFA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GONDAILuA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko

Jaurlaritzako Kultura

Sailak eta Foru

Aldundiak diruz

lagundurako

aldizkaria.



MUMMUUM V _ •


ligEligizarte-ekintza
- - obra social

41 DANOBAT

/44 GOITI
GRUPO DANOSAT

Bihar, martxoak 25, ordu aidaketa

Bihar larunbata, hilak 25, eta etzi, martxoak 26 bi-tarteko gauean, erlojuak ordubete aurreratu behar dira. Goizaldeko 2:00ak direnean, 3:00etan ipin itzazue ordu-lariak. Beraz, aldaketa hori kontuan hartuta ordubete gutxiago izango da lotarako, parrandarako edo ba-koitzak nahi duenerako.



Zorlonok eskabald taldeei

nsiralero, BARREN hartu, kirolen atalera iritsi eta eskubaloiko emaitzei begira hastean, elgoibartarren emaitza bikainak ikustearen pozak irri-farra ateratzen dit. Kadeteak, jubenilak edo seniorrak. Neskak edo mutilak. Ia beti garaipenak. Kopako txapeldunak, igoera faseak jokatzeko...

Hau guzti hau kasualitatea ez dela badakigu, lan konstantearen fruitua baizik. Lerro hauen bidez eskubalo taldearen arrakastaren 'errudunak' zoriondu nahi ditut: jokalariak, zuzendaritza, entrenatzaileak, kirol patronatua, babesleak eta nola ez, astero harmailetatik taldeak bultzatzen dituzten ikusleak.

Bide batez, inoiz partidurik ikustera joan ez direnak ere animatu nahi nituzke. Kiroldegira joan eta ziur nago harrizko geratuko zaretela bertan sortzen den giro apartaz eta partiduen ikusgarritasunaz. Kirolariek eskertuko dute.

A.A.

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek iarlzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



KEKAK

• Henitar bat **zenbait gaztek igande goizetan izaten duen jarre-raz kexatzera** etorri zaigu, "igande goizetan kanpotar gazteak ibiltzen dira gure heniko kaleetan zehar. **Gazte hauek batere kontrolik gabe ibiltzen dira eta erakusten dituzten jarrerak ez dira batere egokiak, are gehiago herritarron segurtasuna arriskuan jartzen badute. Zabalik dauden dendetan iskanbilak sortu, lapurretak egin, eta edadetuak ere ez dituzte errespetatzen, besteak beste. Beraz, kexa honen bidez, dagokionari (Udaltzaingoa, Ertzantza...) arreta gehiago jar dezala eskatu nahi nioke".**



• Emakume bat **Loritoko aldapa oso labankorra eta arriskutsua dagoela** esatera etorri zaigu, "eurixa eitzen dabanian Loritoko aldapia oso labankona egoten da eta hankaz gora jausteko anijsku handixa

izaten da. Lehenagokuan andra nagusi bat jausi zan eta ez da bateron bat jausten dan lehendabiziko aldixa. Ez dakitx kotxien grasa edo olixua izango dan erruduna, baina zer edo zer ein biharko litzatekela beitzantzen jata".

• Herritar bat honako kexa honekin etorri zaigu **BARRE**neko erredakziora "**Antonio Arri-llaga kalean dagoen auto batek** (argazkian ageri denak), gezurra badirudi ere, **as-tebete baino**



gehiago darama leku berean, hau da, zebra pasabidearen gainean aparkatuta. Auto gidari honen jarrera ez zait batere egokia iruditzen, baina Udaltzainek ere bere lana egin beharko luketela uste dut, are gehiago aurrez abisatuta daudela jakinik".



TXALOAI

• 3 neska gaztek **Atxutxiamai**ka **Begirale Taldea** txalotu nahi dute, "Atxutxl@zapatueta **antolatu dute** eta oso ondo pasatzen dugu larunbatetan. Txuri-Urdinera egindako ineeran ederki ibili gi nen".

BAI, ESAN?



Miren Lore Zubizarreta

Rezola gasolindegikoa

Urtea hasi zenetik sei aldiz igo dituzte gasolinaren prezioak. Gidariak kezkatuta ezezik haserre ere agertu dira. Hori dela eta guk **Elgoibarko gasolindegira** jo dugu prezioaren gorakadaren arrazoiak zein diren jakitzeko. Bertan **Miren Lore Zubizarretak** eman dizkigu arazo honen inguruko azalpenak.

- **Gasolinaren prezioa seigarren aldiz igo da jadanik urtea hasi zenetik, zer dela-eta?** - Petroleoaren produkzioa, egunean ateratzen den kopurua, jaitsi egin dute petroleoa ateratzen duten etan. Beraz, gu derrigartuta gaude prezioak igoztera. Guk ez ditugu prezioak aldatzen, gure gasolindegia kasuan zerbitzaria *Repsol* da eta berak agintzen diguna egiten dugu.

- **Prezioak igo direnetik jendeak kontu handiago izaten al du deposioa betetzera?** - Hasierean bai, baina gero ez diote prezioari erreparatzen. Autoa edo kamioia lanerako behar duenak ez du kontu handirik izaten. Badira beti 2.000 pezeta botatzen diotenak eta beraientzat gasolina ez dela igotzen esaten dutenak ere.


- **Igoerak iragartzen direnean auto pilaketak izaten al dira zuen gasolindegian?** Normalean baino auto gehiago egoten da, baina pilaketarik ez. Lehen Madalako bidegurutzerainoko ilarak izaten ziren, baina arain ez. Iltaran egotea ekonomikoki errentagarria ez dela ohartu dira, tnotorra martxan izanda dirua gastatzen baita. Turismo batean 50 litro sartuz gero 5 pezeta besterik ez da auneratzen.

- **Bazirudien kompetentzia zela-eta prezioek bera egingo zutela, baina alderantzizkoa gertatzen ari da, ezta?** Petroleoarekin goi mailan dabilzanek diotenez, Espainia da Europan gasolina merkeen dagoen lekua. Baina dolarra gora joanenez eta produkzioa jaitsi dutenez, prezioak jaitsi behanean igo egin dituzte. Badindi orain produkzioa igotzeko akordiora iritsi direla, baina dollarrak gora egiten jarraituz gero ez daukate prezioak jaisteko asmorik. Esan dutenez, gasoila bere horretan gelditu arren, gasolinaren salneurriak oraindik gora egingo du.

Gillermo Garate, alkatea

"Etorkizuleko Elgoibar eraikitze,..T

Hauteskunde orokorrak pasa berri direla-eta, Guillermo Garate, Elgoibar-ko alkatearekin elkarrizketa bat izateko une aproposa iruditu zaigu. Baina ez dugu hauteskundeetaz eta politikaz bakarrik hitz egin, Elgoibarrek etorkizunari begira dituen proiektu nagusiak ere ahotan izan ditugu. Alkatearekin berbetan jardun ostean honako orulorio hau atera daiteke: gaur egun ezagutzen dugun Elgoibarrrek aldaketa itzelak izango ditu denbora laburrean.



I ZEIN DA PASA BERRI DIREN
HAUTESKUNDE OROKORRETAKO
EmArrrn BURUZ DAUKAZUN

EAJ-PNV lehenengo indarra izan da herriz ere Elgoibarren. Beraz, herritarren konfiantzak here horretan jamaitzen due-la da alkate moduan egin dezakedan halorazioa. Udal hauteskundeak, orokorrak ala autonomikoak izan, gure boto kopunta mantendu edo azken kasu honetan gertatu den moduan igo egin da, Thalore seguma" garelara esan nahi du honek. EAJ alderdia erreferente hat bihurtu da eskualdean. Hauteskunde kanpainan Espainiako alderdi guztiak egon dira EAJ-PNV-ren aurka. Kritika guzlien zentrua izan garelara kontuan hartuz, pozik gaude emaitzekin, EH-ren ahstentzioak ere ez haitigu lagunclu.

IPP ALDERDIAK GEHIENGO OSOA
LORTU DU ESTATUAN. GEHTENGOA
DAUKAN ALDERDI BAT AGINTEAN
IZATEA ONA ALA TXARRA DA
DEMOKRAZIARENENTZAT?

Ez dakit demokraziarentzat ona ala
Ez da izango den, baina espainiar herriak
demokratikoki hartu du erahakia hautes-

kundeen hitartez. Orain, Madrilgo Goher-nua gerra ostean jaio ginenok ezagutu genuen eskuinaren oinordekoa izango den ala ez da harretaz zaindu heharrekoa. Denborak emango digu erantzuna. Dena den, uste dut abertzaleontzat eta Euskal Herriarentzat Espainian eskuinak agintea izatea ez dela onena.

ZEIN DA LIZARRA-GARAZIKO
ITUNA REN ETORKIZUNA? ETA
BAKEGINTZA PROMSUARENA?

Lizarra-Garaziren etorkizuna eta hakegintza prozesuarena orokorrean etenaidi hatean daude momentuz, egoera nahasia haita. Lizarrako ituna beste egoera politiko eta sozial bat nagusi zenean sortu zen, ETAK tregua hasi ondoren, alegia. Itunarekin zer gertatuko den ez daukat argi, inork ez dauka argi, baina itxaropena galdu gabe hakearen alde lanean jarraitzea komeni da. EAJ-PNVri dagokionez, Madrildik PPK eta PSOEk bidalitako aginduei eta kritikei kasurik egin gabe gure hidea jarraituko dugu, guk gure nortasuna badaukagu-eta. Izan ere,

azken uneotan alde guztietatik jaso ditugu aginduak zer egin behar dugun esanez. Dena dela, alderdi bakoitzak gai honen inguruan jarcluteko pertsonak ditu izendatuta, eta heraiiei dagokie galdera hauei erantzutea.

/ UDAL HAUTESKUNDEAK IZAN
ZERENEITK, IA URTEBETE PASA DA.
POLITIKARI DAGOKIONEZ GAUZA
ASKO PASA DIRA ORDUTIII ETA
EGOERA ASKO ALDATU DA. ZEIN DA
EGIN DUZUEN LANARI BURUZKO
BALORAZIOA?

Azken urtean egindako lanaren balorazioa ona da. Bestalde, herri honen historian lehen aldiz, alderdi abertzale guztiak gaude Gobernu Batzordean. Hori azpimarragarria eta pozgarria iruditzen zait, izan ere, abertzaleok familia moduko hat osatzen dugu, ezta haita eta krisialdiak izan arren. Hala ere, ezin ditugu beste alderdiak alde haitera laga, guztiak izan hehar baitira kontuan.

EH ALDERDIAK UDAL GOBERNU

"Udal hauteskundeak, orokorrak ala autonomikoak izan, gure botu kopurua mantendu edo azken kasu honetan gertatu den moduan igo egin da, "balore segurua" garelara esan nahi du honek. EAJ alderdia erreferente bat bihurtu da eskualdean."

3inarriak jartzen ari gara"

BATZORDEAN SEGMENTU AL DU?
AURRERANTZEAN NOLAKOA MUGO
DA EH-REKIKO HARREMANA?

Efren esku dago hori, eck) goragotik datozen erahaki politikoaren esku. Gure al- cletik pozik gaude azken unean elkarrekin egin dugun lanarekin. EHk jartera oso ona erakutsi du eta horrek ere izan du zeresan- nik, izan ere, azken 10 neotako FIBk ez dut uste Udal Gobenman jamaituko .zuke- enik.

ELGOLBAR UDAIBLIZAN SARTZEA
ERABAKI ZUEN PLENOAK. ZER
SUPOSATZEN DU UDALBITZAN
EGOTEAK?

Abenzalea eta euskalduna naizen detik poz handia ematen dit. Alderdi aber- tzaleon aldeko botuarekin onartu zen Cdalbitzan (Euskal Herriko 7 henialdeeta- ko alkateen eta zinegotzien erakundea) sanzea, baina ez zen ezezkorik izan. PSE- EE eta PI> abstenitu egin haitziren eta ho- rrek ere poztu egiten nau. Batzordeak la- nean hasi herri direnez, oraindik ezin dai- teke Udalbiltzari buruz ezer askorik aurre- ratu. baina proiektu oso garrantzitsua dela uste dut.

I HERRIARI DAGOKIONEZ,
ELGOLBARREK DITUEN PROIEKTU
NAGUSIAK ZEIN DIRA?

Latt proiektu naf,ntsi claud. Lehenik, Albitxuriko industrialdea aipatuko nuke: Industria benia emkartzeaz gain, herriaren alde zaharrea dauden lantegiak kanpo al- dera ateratzeko balioko du 130.000 m²-ko industrialde honek. Bestalde, Debabarre- nean 4 industrialde daude: Mutnkun, Men- daron, Eibarren eta Elgoibarren. Guztien arazoa leku falta clenez, industrialde hakar batean batzeko asmoa dago. Momentuz,

industrialde hakar horren hulego nagusia Elgoibarren janiko da. Horrela, dirua ere hertan inbertitzeko aukera gehiago daude.

Bigarren proiektua Madalako bizileku gune berria da. Zonaldea erabat itxuralda- tuko da eta herri- ko bizimoduaren bihotza bertan kokatuko da. Ba- sarte auzoa eta Kiroldegiaren ar- tean dauden lu- rretan etwak eta parke bat entiki- tzeko asmoa ere badago, baina ja- bego pribatua duten lurrak dire- nez, hortan gabil- tza lanean.

Hirugarren proiektu nagusia, Deba ibaiaren garbiketa litzateke. Ildo beretik, Goiko Errotako zuhia oso garrantzitsua izango da. Santa Ana kalearen amaieran

dagoen aparkalekua eta Sigma Itartean eraikiko da zubi hau eta trafikua arintzeko oso lag,ungania izango da.

Azkenik, makina enemintaren sekto- reak duen garrantzia ikttsirik, fonnazioari garrantzia eman nahi diogu, eta IMH eta Ges- tio E,skolarekin egin ge- nuen apostua indartu nahi dugu.

INOLAKOA LZANGO
DA ETORMZUNEN
ELGOLBAR?

Etorkizun oparora aurrikusten dut. Mo- mentuz, oinarriak jar- tzen ari gara. Aukera hau aprobetxatuz, hen- tarrei barkamena eskatu nahi nieke, jakin badakit eta, hauts, zikinkeria eta eragoz- pen asko sofritzen ari direla. Tamalez, or- dea, eragozpen hauek ezinbestekuak dim etorkizuneko Elgoibar eraikitzeko.

"Albitxuriko eraikiko den 130.000 m²-ko industrialdeak, industria berria erakartzeaz gain, herriaren alde zaharrea dauden lantegiak kanpoaldera ateratzeko balioko du."



"Herri honen historian lehen aldiz, alderdi abertzale guztiak gaude Gobernu Batzordean. Abertzaleok familia moduko bat osatzen dugu, eztabaida eta krisialdiak izan arren. Hala ere, ezin ditugu beste alderdiak alde batera laga, guztiak izan behar baitira kontutan."

ler egingo zenuke 340 milloi tokatuz gero?



JUAN RODRIGUEZ
48 urte, galdaragilea

Lana utziko nuke eta gero bidaiaren bat egin. Jokatzeari jokatzeko dut, baina esperantza apurr bat beti izaten da. Gainera, Elgoibarren eta Irunen tokatu da oso denbora gutxian.



ANA MARI ARRIOLA
59 urte, etxeoandrea

Nahiko familia haundia dakat eta banatu egingo nekela uste dot. Baina lehenengo gauzia, bazkari on batekin zelebratzea izango litzake.



FERNANDO PEREZ
59 urte, aurre jubilatua

Ahalik eta ondoen biziko nintzateke, bidaiatuz eta mundua ezagutuz. Astero jokatzeko dut primitiban, baina nahiko zaila da diru asko tokatzea.



DOMINGO ACUÑA
66 urte, jubilatua

Ez dut loterian jokatzeko, baina hainbeste diru izango banu behartsuen artean banatuko nuke, hauek ere zerbait izateko eskubidea dute-eta. Konpartitzen jakitea garrantzitsua da.



BRARIA MONENO
48 urte, umezaina

Lehendabizi nire alabari pisu bat erosiko nioke eta ondoren, arazo txiki mordo konponduko nituzke. Baina lana ez nuke sekula utziko, lana osasuna baita.



EDURNE ARRIETA
33 urte, etxeoandrea

Oporretara joango nintzateke eta familiakoei ere piska bat emango nieke. Gabonetan jokatzeko dut, baina bes-tela askotan ez, beraz, zaila da niri loteria tokatzea.

4, Anchtistegui s.a.
ZERAMIKA

Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 30 92
Faxa: 943 74 30 92

Biltegia: Olaso industrialdea, Orasope, 5, 20870 - ELGOIBAR
Tel: 74 20 38 - 74 23 71

14 **IKPITXO**
ROCK-KAFEA

San Frantziska, 41 • Tel. 943 74 39 25

ASESORIA, GON

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAUAK

San Bartalame 1. Tel: 943 74 26 74/02 34 Faxa 943 74 21 29


UDABERRIA

• gandeian goizaldeko ordubiak direnean erlojua ordu bete aurreratu behar-ko dugu denok, besteekin gelditzeko hitzordua jartzean arazorik izan nahi ez badugu behintzat. Ordubete gutxiago, beraz, bakoitzak pentsatuta zeukana egiteko. Udaberrian sartuak gara, ordua aldatu da eta odolarekin batera gu ere aztoratu egin gara.

Negua luzea izan da. Ez latza edo gogorra, baina bai luzea. Eta eguraldi hotzen ostean, epeltasuna eta argia nagusitu dira herriko kaleetan. Ba al da ezer hoberik goizean jaiki, leihoak ireki eta argia zein eguzkia ikustea baino? Hau idazten ari naizen unean lankide bat purrustadalca ari da aldamenetik, "udaberrixa, udaberrixa, polenian besterik ez dot igarri nik urtaro berrixa heldu dala".

Batzuek lorak ikusi hutsarekin ez tulka hasten dira eta besteak, berriz, zelaiak noiz loratuko zai egoten dira. Udaberria, benetan zoragarria al da? Baietz diote maiteminduek, ekologistek eta eguraldi epela atsegin dutenek; ezetz, berriz, alergikoek.

Goizean jaiki, leihoak ireki eta eguraldi ederra dagoela ikusita pozik joan ohi gara lanera, ikastera edo besterik gabe kalera. Udaberrian gaude, loreen eta maitasunaren urtarooan.



UṬF [HfiTiF, [DEGIRA



Xtdr

PAUSOHA **zapatadenda**

Zaintzen al dituzu oinak? - Bai, asko.

- **Zein printzek nahiko zenuke kristalezko oinetakoa zuri jaztea?** - Alex Crivillek.

- **Oinetako usai txarra kentzeko erremediorik?**

- Plantila onak erabili, oinak egunero garbitu eta galtzerdiak aldatu.

- **Oinetakorik erosoena?** - Zapatilak.

- **Eta oinei kalte gehien egiten diena?**

- Plataformna eta takoi handidun zapatak.

- **Nora iritsi nahi zenuke pausoka-pausoka?**

- Munduaren azken muturreraino.

Plataformak ala takoi estuak?

- Ez bata eta ez bestea, bien arteko zerbait nahiago dut.

Zure dendako zer eramango zenuke irla desertu batera?

- Musika.

- **Oinetakoentzat kolore bat?** - Grisa edo beltza.

- **Poltsa eta oinetakoak konjuntora joan behar al dira beti?**

- Ez, nik behintzat ez ditut konjuntora eramaten.

- **Zeren alde egingo zenuke ibilaldi bat?**

Emakumeen eskubideen alde.

- **Zein da salgai duzuen zenbakirik txikiena?** 35 zenbakia.

- **Eta handiena?**

- 46a. Zenbaki handiak gehiago saltzen dira.

- **Ezer esaten al dizute beste pertsonen zapatek?**

Bai, gainera denda zabaldu genuenetik gehiago fijatzen naiz zapatetan.

- **Zapatak zer dira konplementoak ala funtsezkoak**

- Funtsezkoak dira. Ongi jantzita joan eta zapata itsusi batzuk soinean izanez gero, dena izorratuko zenuke.

- **Zapatak zeuk garbitzen al dituzu?**

- Bai, zikinak daudenean nik garbitzen ditut.

- **Inoiz sentitu al zara zapata berriekin bezain estu?**

Behin edo behin konpromisoren baten jarri nautenean.

- **Udaberrian sartuak gara. Zein da urtaro berrirako tententzia nagusia?** - Zapata lauak, takoirik gabeak.

'Fatronik' enpresak aipamen berezia jaso du Makina Erremintaren Bienaleko Diseinu Lehiaketan

'Ulises makina izan da saria eskuratu duena

Elgoibarko Fatronik ikerkuntza enpresak 30 ikerkuntza proiektu aurkeztu zituen iaz. Ikerkuntza alorrean Euskal Herriko enpresarik auneratuenetarikoa da Fatronik. Bere lana heste enprekin daukan harremanari esker egiten du, izan ere, lan teknikoaren % 72a beste enpresek kontratatuta egin dute. Fatronikek Europar Batasunak diruz lagundutako hiru proiektu egin ditu. Proiektu horietako batek, Ulises I fresadorak, Makina Erremintaren Bienalean egindako Diseinu Lehiaketa Nazionalean aipamen berezia lortu du.

Makinaren abantailak

Makina honek abiadura azkartzeaz gain, kostua jaisten du eta beste makina gehienek baino prestazio gehiago dauzka. Makina ho-



netan ikus daiteke, hain zuzen ere, makinak egiteko modu berri bat, zinatika paraleloa industriara aplikatzea, alegia. Makina berri hau ikerketa askoren emaitza da eta guztira 1.000 milioi pezeta gastatu dituzte azken emaitza lortzeko lanetan. Makina Erremintaren Bienaleko sariaz gain patente mundiala ere eskuratu du. Fatroniken eta Eibarko Tekniker ikerkuntza enpresaren helburu nagusiak teknologian oinarritutako enpresa promozioa eta lanaren internazionalizazioa dira. Hori dela-eta egoitza bat daukate Argentinan eta baliteke aurten inguruan beste hiru irekitzea.

'Ulises P fresadorak abiadura azkartzeaz gain, kostua jaisten du eta beste makinek baino prestazio gehiago ditu.

San Lorenzo erreka ubide berritik joango da aurreranlzean

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ordaindu dituzte lanak

Ean Lorenzo erreka urak jadanik hasi dira bide berritik igarotzen. Ermuaranbide parean orain arteko erreka eta bide berria banatzen zituen lur zati bat zegoen eta berau orain dela gutxi kendu zuten. Orain, Azkarateko bidearekiko paralelo dagoen bidea erabiliko dute urek. Proiektu hau uholdeen arriskua saihesteko lan bat da, izan ere, 1988ko ufalak gogoan izanda, ubide honek ahalik eta ur gehien eramatea izan da lanen helburua. Guztira 300 milioiko kostua izan du; Eusko Jaurlaritzak %75 ordainduko du, Foru Aldundiak, berriz, %25. Lanak joan den urteko otsailean hasi zituzten eta azken zati honekin amaitutzat eman dute proiektua. Hiru fase-



300 milioiko kostua duen proiektu honen helburua uholdeen arriskua ebitatzea da.

tan egin dituzte obrak: lehenengoan Madalan aritu ziren eta gero Kakatza

aldean. Bertan IMH aldamean zegoen tuboa kendu eta zabalera handiagoko hodia jarri zuten. Ondoren, erreka-toa desbideratu zuten eta trenbidearen azpian egin duten bide berriarekin elkartu. Lanak modu egokian aurrera ateratzeko lur eta harri asko mugitu dituzte eta baita harritzko hormak eraiki ere. Hemendik aurrera San Lorenzo erreka urak bide zuzenetik joango dira.

Erreka hideratzeko lanez gain, zubi zaharra bota eta ormigoizko estruktura berri bat jarri dute, honela, zubian argitasun gehiago izango da eta hori, bai oinezkoentzat eta baita gidarientzat abantaila handia da.



100 lagun inguru izan ziren "Arigera txotx" sagardo festan

Joan den ostiralean, martxoaren 17an, 100 lagun inguru elkartu ziren Kultur Etxeko sotoan "Arigera txotx" sagardo festan.

Donostiako 'Bigira' trikiti taldeak musikaz alaitu zuen giroa eta bertaratutakoak dantzan aritu ziren izerdi patsetan amaitu arte. Atxutxiamaikako kideen eskutik joIasean ere ibili ziren. Giro onean Usurbildik ekarritako bi sagardo kupelak hustu zituzten eta 21 :00etan hasitako jaiari gaueko 1:30ak inguruan eman zioten amaiera.



'Hiru Pauso, hiru norabider diapositiba emanaldia bi aldiz eskaini dute aste honetan Elgoibarren

Josu Iztueta bi aldiz izan da Elgoibarren azken astean. Bietan 'Hiru Pauso, hiru norabide' diapositiba emanaldia eskaini du. Ostiralean, Gaztetxean izan zen eta asteazkenean, berriz, Kultur Etxean. Berauetan Eskandinavian egindako hiru trabesia izan zituen mintzagai. Bata bizikletaz egin zuten, bestea kanoan eta eskiatzen hirugarrena. Hiru espedizioetako abenturak luze eta zabal kontatu zituen bidaietako irudi ikusgarrien laguntzaz.



• Gestio Eskolako 100 itaslek mitera berthntasunerake mintegian hartu zuten parte

Joan den ostegunean, hilaren 16an, Gestio Eskolako 100 ikasle inguruk aukera berdintasunerako mintegian hartu zuten parte. Mintegia Emakunderekin Elkarlanean antolatu zuten *Optima* programaren barruan. Jardunaldiaren helburua gizonezkoen eta emakumeen egoerari buruzko gogoeta bat egitea zen, batez ere erakundeen arloan. Baita gizonen eta emakumeen artean lan aukerak ezberdintzen dituzten estereotipoak eta aurritziak lantzea ere. Izan ere, gazte hauek ikasketak amaitu ondoren enpresetako gestoreak izango dira eta beraien lantegietan jarrerak alda ditzaten nahi da.

• Ballegoibtin lizentziarik gabe jarritako telefonia mugikorrerako antena errefratu dute

Ballegoixin ejarri zuten telefonia mugikorrerako antena kendu zuen joan zen astean Udalak. Enpresa batek, lizentziarik gabe, 'Etxe-Tar' eta 'Kondia' lantegiengaineko baseniaren inguruetan antena jarri zutela ikusi zuten Udaleko langileek. Hori horrela izanik, Udalak enpresari antena botatzeko agindu zion, bestela berak bota beharko zuela gaineratuz. Horrela, epea igarota, enpresak agindua bete ez zuenez, joan den astean Udalak azpikontratatu enpresa batek antena desmontatu eta eraman egin zuen. Azken boladan, poltsikoko telefonoetarako antenak asko ugaritzen ari dira eta enpresek edozein tokitan jarri nahi dituzte. Hori dela-eta, Udalak, lizentziak eman aurretik, enprekin lekua zehaztu nahi du, horrelako antena denak bertan ipini daitezten.



Elgoibarko emakumeek txangoa egin zuten Hondarribira eta Donostiara

'Haizea Emakume Taldeak' antolatuta, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, emakume elgoibartarren talde batek txangoa egin zuen joan den martxoaren 19an. Goizean, Hondarribian izan ziren bertako alde zaharra eta herriko hainbat txoko ezagutzen. Gidari baten laguntzaz Hondarribiko historia piska bat ere ikasi zuten. Ondoren, bazkaria Donostiako Arantzazu hotelean egin eta anatsaldean akuariumera joan ziren. Esan digutenez, egun polita igaro zuten ernakume guztiek batera eta beraien eguna modu egokian ospatu zuten.

• **Udalaren gestioari burtulta datuak ezagutzera eman dittute**

Udalak arlo ezberdinei buruzko datuak ezagutarazi ditu: aurrezkoa, zor bizia, presio kala eta pertsonalaren kostua, esaterako. Datu hauek gestio ona egiten ari dela nabarrentzen dute. Udala egoera onean jartzen ari da eta legealdia amaitzerako datuak hobetzeko helburua dute, zorrari dago-kionean, batez ere.

Gaur egun, % 18,34ko aurrezki ahalmena dauka Elgoibarrek. Hau da, Udalak inbertsioak egiteko diru kopura hori dauka. Ehuneko hori Gipuzkoako batz bestekoaren gailnetik dago, 10.000 eta 20.000 biztanle arteko herrietarako % 17,08ko neurria eskatzen baitute. Azken urteetan gora beherak eduki ostean, maila horretara iritsi da.

Zor biziari dagokionean, azken urteetan arlo honetan ere hobekuntzak izan dira, kopurua ia erdira jaitsi da 1995. unetik hona eta orain % 70,53koa da. Hau da, Udalaren sarrera 100 pezetakoa bada, 70,53 pezeta zor ditu. Orain 857 milioi zor ditu Udalak.

Elgoibarren presio fiskala (herritarrek Elgoibarren bizitzegatik ordaintzen dutena) pertsonako 48.197 pezetakoa da, Gipuzkoako batz bestekoaren azpitik dago, batanaz beste 52.217 pezetakoa baita. Hala ere, parametro egokien banuan aurkitzen da.

Azkenik, pertsonalaren gastuen kostuak azken urteetan beherantz egin du. Udala gastuak kontrolatzen ari da eta gaur egun 25 puntukoa da, Gipuzkoako batz bestekoaren 7 puntu azpitik dago.

Alderdiak dimisioa eskatu dio Eulogio Perez Garay PPko zinegothari

'Azkena' dantzalekuan pistola atera zuelako atxilotu zuten

Ipalderdiaren Gipuzkoako ordezkariak alderdi bereko Elgoibarko zinegotziaren dimisioa eskatu du. Eulogio Perez Garay igande goizean atxilotu zuten Goardia Zibilek 'Azkena' dantzalekuan istilua sortu ostean, pistola bat atera baitzuen. Hainbat lekukok Ertzaintzari adierazi ziotenez, igande goizeko 8:00etan zinegotzia, dirudienez mozkortuta, 'Azkena' diskotekara joan zen eta dantzalekuko atezainarekin izan zuten lehendabiziko tira-bira hala ere barrura sartu zen. Bertan berri ere beste bezero batzuekin istiluetan hasi eta pistola erakutsi zuen. Ertzaintzari abisua eman eta dantzalekuko arduradunek ateratzea lortu zuten. Etxean Perezek ez zien ertzainei aterik ireki



Istiluak gertatu zirenean dirudienez Eulogio Perez mozkortuta zegoen eta ez du gertatu zena gogoratzen.

eta ukatu egin zien pistola zuenik. Ondoren, Guardia Zibila epai learen agindurekin Perez atxilotzera joan zen.

3 pistola etxean

Etxea miatu ostean bildumako bi pistola eta erabiltzeko prest zegoen hirugarren bat aurkitu zizkieten. Arma edukitzeko baimenik ez zuenez, Ertzaintzak atestaturia ireki du. PPko arduradunek adierazi dutenez, istiluk gertatu zirenean Eulogio Perez mozkortuta zegoen eta gertatutakoaz ez du ezer gogoratzen. PPko arduradunek dimisioa eskatu diote eta berak ez du ukatu, beraz, orain zinegotziak kargua boluntarioki laga arte zai egongo dira.

San Pedro auzoko uholdeen aurkako plana bideragarria dela adierazi du ikerketa egin duen IEKosi enpresak

'Ekos' enpresak uholdeen aurkako proiektuak ingurugiroan edukiko duen eragina neurtu du Udalaren eskariz. Derrigorrezkoa ez izan arren, Udalak ikerketa egitea erabaki zuen. San Pedro auzoan Deba ibaiaren ondoko lurra jan eta erre-karen bidea zabaldu egingo da. Proiektu honek bederatzi arlotan edukiko duen eragina aztertu du aipatutako enpresak eta horietatik seitan eragina ertaina eta beste hirutan konpatiblea izango dela azaldu du. Eragina, beraz, ez da kasu bakar batean ere, ez kritiko ezta larria ere izango, erre-karen alboko lumen egoera ona delako. Horrela, ingurunearen ezauganiak eta edukiko duen eragina aztertuta, proiektua bideragarria dela aipatzen du ikerketa egin duen enpresak.

'Ekos' enpresak egin duen txostenaren



Deba erre-karen ubidea zabaldu egingo da San Pedro auzoko bizilagunak uholdeetatik babesteko.

datuak orain ezagutarazi dira. Hemendik aurrera, Udalak Eusko Jaurlaritzarekin konbentzioa sinatzea baino ez da falta. Hau egiten denean, obrak udaren bukaera aldera hasiko direla adierazi zuten Udaleko ordezkariak.



ilabete honetako argazkia Rosa M. Arriolak utzi digu. Arantzazun atera zuten erretratu I 956ko maiatzaren 22an, urte hura jubileu urtea zela aprobetxatuz bertara egin zuten txangoa argazkian agertzen direnek. Goitik hasita, ezkerretik eskumara honako hauek dira erretratukoak:

Lehenengo ilaran: Arantzazuko fralle bat, ezezaguna, Milagros Barrenetxea, Balbina Vives, Milagros Landa, M. Dolores Landa, Margarita Lazkano, Maria Iriondo, Maria Urbietta (t), M. Pilar Larrañaga eta Don Jose de Roteta.

Bigarren ilaran: M. Asun Zabaleta, Nogero, Ezezaguna, Maribel Lazarobaster, M. Angeles

Urain, Iñasi Iriondo, Mertxe Mugerza, Juanita Garate, Jesusa Iriondo eta Belen Ansola.

Hirugarren ilaran: Consuelo Aranberri, M. Eugenia Gurpegi, Juanita Ulacia, Begoña Aranberri, Trinidad Urbietta, M. Dolores Zezeaga, M. Paz Berasaluze, Conchi I Viugerm, Ana M. Zabaleta, M. Pilar Landa, Mertxe Arriola (t), Maria Azpiazu, Asuncion Ansola eta Natividad Unzuetaelg.

Laugarren ilaran: Begoña Azkarate, Rosa M. Arriola, Rosa M. Arrillaga, M. Teresa Iriondo, M. Pilar Zezeaga, Rosa M. Atxa, Antoni Lazarobaster, M. Isabel Landa, Cecilia Urain, Jesusa Arriola, M. Isabel Elorza, M. Jesus Azpiazu, Maruja Garcia eta Begoña Ansola.

A be kuntzafen bidean aurrera

HABARMENA DA MENDARO AZKEN ALDI HONETAN ALDATZEN AR1 DELA. BIZTANLEGOAREN KOPURUARI BEGIRATZEA BESTERIK EZ DAGO HORRETARAKO. ORAIN DELA BI URTERA ARTE, 1998RA ARTE ALEGIA, BEHERAKA JOAN DA MENDAROTARREN KOPURUA. HALA ERE, HASI GARA GORAKA: 1999KO URTARRILEAN 1342 KONTATU ZIREN ZENTSUAN, AURTEN, BERRIZ, 1375 IZAN DIRA. AZKEN ALDIAN KANPOTIK ETXEBIZITZA BERRIETARA ETORRI DEN JENDEAK EKARRI DU GORAKADATXOA ETA GEHIENEAK GAZTEAK IZANIK, GARRANTZITSUA BIHUR LITEKE HAUEK MENDARORENTZAT DATOZEN BELAUNALDIETARAKO ESKAINIKO DUTEN EKARPENA.

Hazten ari da, beraz, Mendaro. Orain arte egin dituzten etxebizitzak eskuragarri izan zaizkie gazteei (bai hernengoei eta baita kanpokoei ere); hala ere, txalet gisako etxe adosatuen proiektuak, ospitalaren azpiko zelai magalean egitekoak direnak, beste era bateko jendea ekar lezake, herri gazte eta aurrerakoi batentzat aldaketak ekar ditzakeena.

Alde urbanistikoari segiz, aldaketak herriaren izaera markatuko duten puntu batzuetan igarriko dira. Lur komunalen berrindartzea, errotonda famatua eta Udaletxe berria epe motzeko proiektu gisa datoz.

Lur kontutialak, pinu gehiago

Udaletxearenak dira Santa Kruz parkea eta inguruko lur sailak (gaur egun biluztuta ikusten ditugunak). Gipuzkoako Basozainen Elkartearekin hartutako erabakiaren arabera, eta haien txostena onartuta, ikerketak eskaintako datuetatik ahalik eta errendi-

mentu handieneko zonaldea bihurtu nahi dute hau. Ikerketa honetan lau zonalde definitu dituzte, bakoitzari tratarnendu berezia egokituz:

1. zonaldea: Sasiz betetakoa, arteak eta kare haitzezko zoru malkarrak ezinezko egiten du leku hau landatzea. Beraz, 13.750 m² hauek dauden bezala utziko dira.

2. zonaldea: Hegoalderago aurkitzen da hau. Bertan sinsignis' pinua birlandatzeko asmoa dago.

3. zonaldea: Parketik gertu gertzen den ingurunea. Parkearekin bat eginik, ezaugarri paisajistikoak dituzten zuhaitzak sartuko dira.

4. zonaldea: Hemen ere ohizko pinua landatuko da, pinu gehiago alegia.

Errotonda

Errotonda egingo zutela adierazi ziguten an'en, oraindik ez dira lanak martxan jarri. Aurre-proiektua egina dago, baina susto eta istripuei leku eman dien trafiko egiturari itxura zirkular nonnala ematea falta zaio.



Argazkian errotonda berriaren profektua
11(14 daiteke41 *




UDALETXE BERRIAREN SARRERA

Udaletxe berriaren proiektua 1998ko ekainean egindako plenoan onartu zen. EAJk duen gehiengoak aukera gutxi utzi zizkien gainontzeko herritarren ordezkeriei. Hau izan da aztertu den proiektu bakarra eta herriaren aurpegia izango den eraikuntza postmoderno hauteskundeen aurretik eman zitzaizen herritarrei ezagutzera panel informatibo bidez.

Marraztutako eraikinaren obrak nork egingo dituen ez dakite oraindik, baina epe laburrean, lehiaketa publiko bidez aurki egingo da norbait lan horiek aurrera ateratzeko arduraren jabe. Azken estimuen arabera aurrekontua 337.498.000 pezetatan neurtu da eta Udaletxe berriak honako atal hauek izango lituzke: Pleno aretoa, alkatetza, idazkaritza, administrazioa, bulego teknikoa, zerbitzuak, inprenta gunea (fotokopiagailua, faxa...), hiru bilera gela eta, beste hainbat ekintzatarako gela. Hauetaz gain, bake epaitegia eta posta zerbitzua ere Udaletxeko eraikinean barneratuko dira.

Egokitzapenetik hemezortzi hilabetera bukatua izango omen da herriko enparantzan jasoko duten Udaletxea eta arkitektoek diotenez, "nortasun propioa ziurtatuko diote inguruarekiko diferenteak diren materialaren koloreak eta forma geometrikoak".



UDALETXE BERRIAREN SARRERA

Irji71 IRITZI

UNAI KANALAE TREBERRIA

Mendaron azken aldi honetan egiten ari diren aldaketa urbanistikoak (Ikastola, frontoia, udaletxea, ospitela, zubi berria, etxebizitza berriak...) herriari nortasun sendoa ematen diote. Mendarok orain azaltzen du herriaren eta naturaren arteko binomio ideia inguruko herrien hazkunde masibora heldu gabe, herritarrak bizi maila batekin mantenduz. Etxebizitza berriak, orain arte bezala, herritarrentzat eta gazteentzat enfokatuta eraikitzea eskatuko nuke eta ez markesentzat".




LEONOR PORTRIA

"Orain dela 39 urte iritsi nintzen Plaza auzora eta geroztik gauza asko aldatzen ikusi ditut. Herria poliki-poliki hazten joatea ondo iruditzen zait. Nahiago dut, ordea, hiri handi ez bihurtzea. Orain bezalako herri lasaia gustukoa dut. Ondo bizi gara Mendaron gaur egun. Natura zaintzea ere ongi iruditzen zait".



BIEKO EGAVIA

"Herri txiki bat nahiago nuke, natur guneekin eta gazteentzako tokiekin. Herri txikia izanez gero, jendea ezagutzen da. Mendaron ez dira etxeak eta txaletak falta, baizik eta kirol aretoak eta hilero ekintzak antolatzea (kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak...).



kir.d11-11,.

Mendarotarrak borondatetsu agertu dira Mozanbikerentzat dirulaguntza emateko

Denok izan dugu azken aldi honetan Mozanbiken izan diren ezbeharren berri. Uholdeek milaka lagun etxerik, jatekorik eta oinarritzko bizibiderik gabe utzi dituzte Afrikako herrialde horretan. Hori dela eta, hilaren 19ko mezan Mozanbikera bidaltzeko diru asko batu zen. Don Angel apaizak adierazi digunez ehun mila pezetatik gora jaso zituzten. Mendarotarrak borondatetsuak diren seinale.

❖ Emakumezkoen frontenis maratoia astehuruanjokatuko da

Asteburu honetan, hilaren 25ean eta 26an Goñati pilotalekuan emakumezkoak frontenisean arituko dira goizez eta arratsalde. Euskaldunez gain, Bartzelonatik, Tarragonatik eta Zaragozatik etorriko dira kirolariak. Guztira 12 bikotek hartuko dute parte lehiaketan. Txapelketa igande arratsaldean bukatuko da eta sari banaketa finalen ostean egingo dute.

• Zuhaitz Eguna egin zen Igandean "In Leike" k antolatuta

Egun konpletoa izan zuten Mendaroko umeek joan den igandean, martxoaren 19an. Goizez haritzak, urkiak, pagoak eta sekuiak landatu zituzten, guztira 27 zuhaitz. Landaketa Santa Kruz parkean egin zuten "Kortaberri" lorezainaren laguntzaz. Arratsaldean 'Bei's bi' taldearen txontxongilo emanaldiarekin gozatu zuten herriko gaztetxoek Kultur Etxean. 'In Leike' taldeko aisialdi taldearen eskutik, giro onean pasa zuten, beraz, eguna mendaroko hauek.

Euskal Presoen aldeko ¹Bateral plataforma eratu dute Mendaron



Euskal Preso politikoak jasaten ari diren egoera latza salatu nahian, gai honi buruzko eztabaida egin zen hilaren 22an. Mendaroko Platafonna Aktiboak elkarte eta alderdi politiko guztiei zabal-

du zien deia, Mendaron 'Batera' plataforma sortzeko asmoz. Taldearen helburua euskal presoen etxeratzea aldarrikatzea da, eta horretarako, astero Udaletxe aurrean kontzentrazioak egiteko asmoa daukate. Baita herriko etxeetan zein eraikin publikoetan "Euskal Presoak Euskal Herrira" lema daukaten izarak jartzekoa ere. Honela herritarrak arazo honekin kontzentzia daitezen lortu nahi dute.

Mendaroko Gaztetxearen aldeko sinadura bilketa martxan da

Mendaron Gaztetxearen aldeko sinadurak bilitzen ari dira, eta horretarako komunikatu bat zabaldu dute balizko gaztetxea zer den azaltzeko. Agirian Gaztetxea, gazte sentitzen den ideia eta kolore guztietako jendearentzako lekua dela adierazten dute. Bestalde, Gaztetxearen eta gaztelekua-aren ideiak kontrajarriak direla ere esaten du idatziak, izan ere, gaztelekua koordinatzaile bat izango luke eta Gaztetxean gaiak asanblada bidez erabakiko lirarteke. Beraz, gazte sentitzen diren herri-



Mendaroko gazteek Gaztetxea izateko eskubidea aldarrikatzen dute.

tarrak agiria sinatzera deitu nahi ditu Mendaroko Gazte Asanbladak, baita bileretara agertzera ere. Sinadurak Txirristaka, Ormola eta Leku Ona tabernetan jasoko dira.

Angel Agirregomezkorta, teknikoa zen joan den ostiralera arte. Egun hartan bertan lanari utzi zion, ordea, loteria primitiban 338 milioi pezeta tokatu zitzaizkion-eta. Aurrerantzean, lana kenduta, lehengo bizniodu normala egiteko asmoa dauka. Hori bai, lantzean behin bidaiaren bat egiteko aprobetxatuko du dirua. Ostiralaz geroztik, kalean doanean herritar denek agurtzen dutela esan digu. 53 urterekhz, jubilazioan pentsatzen hasita zegoen eta irabazi duen dirutzarekin ziorik onena tokatu zaiola aitortu digu, eskhziabarik ordaindu behar izan ez dugun elkarriketa honetan.

CCS

O

ANGEL MARI
Agirregomez

"Jubilaziorik onena tokatu zait"

—**Zer sentitzen da loteria primitiban 338 milioi pezeta irabaztean?**

- Demaseko poza eman zidan. Egunkaria erosi ondoren enteratu nintzen, goizeko zazpie tan. Azken orrian zerbakiak ikusi nituen eta saltzaileari zerbaki haiek nik nituenak zirela esan nion. Berak, ordea, adarrik ez jotzeko esan zidan. Ondoren, egunkaria hartu eta lanera joan nintzen, beste edozein egunetan bezala. Baina goizeko zortzietarako handik alde eginda nengoen. Nagusiak joateko esan zidan, bestela lantegia hankaz gora jarriko zela-eta. Gainera, burua ez neukan lana egiteko, beste galaxia batean baizik. Gero, bankura joan nintzen boletoa entregatzera.

—**Bankuak zure atzetik hasiko ziren berria jakitean, ezta?**

- Telefono deiak berehala hasi ziren, bankuak nire-

kin batean eta bestean zitak edukitzeko eske aritu ziren. Orain boletoa bankoan dago. Osterantzean, kazetari bat ere eton'i zitzaidan elkarriketa egitera.

—**Beti zerbaki berberekin jokatzen omen zenuen.**

- Astero zerbaki berberetan jokatzen nuen, bonolotoan eta primitiban, bietan. Urtetan jokatu dut zerbaki horietara. Horiez gain, Ioteria nazionalen ere jokatzen dut. Aurrez, beste diru piska bat irabazi nuen behin. Duela lau urte-edo, zerbaki berberekin, 30.000 pezeta inguru tokatu zitzaizkidan. Konplementarioa ere tokatu izan balitzait, milioi erdi pezeta eskuratuko nituzkeen.

—**Halako sari potoloa tokatuko zitzaizula pentsatu al zenuen inoiz?**

- Sarritan pentsatu izan dut tokatuz gero, lanari utzi-ko niola. Txikiteoan askotan jarduten dugu jubilazio-

az hizketan, gaur egun denek 55 urte betetzean jubilazioa hartu nahi dute, lana lagatzeko. Bezperan jubilazioari buruz berbetan egon ginen eta biharamonean jubilaziorik onena tokatu zitzaidan.

—**Dirutza horren jabe izanda, bizimodua aldatuko al duzu?**

- Lana utzi egin dut. Igual tarteka joango naiz lantegira, baina orain behintzat denbora beste zerbaitean emango dut. Piska bat aldatu egin beharko dut bizimodua, lantzean behin bidaiaren bat egin beharko dut. Lehen lanean ematen nuen denbora orain disfrutatzeke erabiliko dut. Baina bizimodua ez dut asko aldatuko, Elgoibarren bizitzen segituko dut, ez daukat beste nonbaitera bizitzera joateko asmorik. Aukera suertatzen denean, nonbaitera joatea bururatzen bazait, joan egingo naiz.

—**Ingurukoek zer esan di-zute?**

- Zer esango didate ba? Piska bat adarra jotzen ibili dira. Elgoibarren denek ezagutzen naute. Ez zait derrepentean lagun berririk agertu, baina badakizue zer gertatzen den, orain denek agurtzen naute herrian.

—**Diruak zorientasuna ematen al du?**

- Diruak zorientasuna ematen du, baina osasuna da behar dena. Hori ere beharrezkoa da. Dirua edukita txorimaloa bezala bueltaka hasiz gero, norberaren osasuna izorratu daiteke eta konturatu orduko "beste aldera" joan. Burua bere lekuan eduki behar da momentu guztietan.





Jose Viñaras Modamio

(1908-1974)



- 1906ko irailaren 26an jaio zen Soriako Santa Maria de las Hoyas herrian. Bost anai-arreha izan ziren, bera hirugarrena. Umetako ikasketak herrian zegoen eskolan egin zituen. Sasoiko ohiturei jarraituz, oso gazterik hasi zen baratzean, oilategian eta soroan lanean familiakoei lagunduz.
- Geroago bere kasa ikasi zituen zurgin eta igeltsero ofizioak. Segala lanean eta ardiei artilea ebakitzen trebea zen, baita animaliak domatzen ere. Jose, langile amorratua zen eta leku askotatik deitzen zuten lan hauek guztiak egiteko. Bestalde, bere henian eta inguruetan erromeria gutxi izaten zenez, jaiak lagunekin kartetan jolasten pasatzen zituen. Gaztaro lasaia izan zuen.
- Soldaduskatik libratu ostean, herrian ezkondu zen bertako Juliana de Pablarekin, eta 9 seme-alaba izan zituzten; Marcelina, Antonio, Isidro, Alfonso, Satur, Katalina (f), Jose, Jesus eta Demetrio. Labortzan jarraitu zuen familiak lanean zintzo eta gogor lan eginaz, familia handia atera zuen aurrera, denak estimatuak herrian.
- 1953an seme batzuk Elgoibairera etorri ziren lanera, eta handik 2 urtera, bera etorri zen gainontzeko familiarekin batera. Jose, Constan Bouzasekin hasi zen lanean eraikuntzan eta Sigman ondoren. Geroago, "Geminis" tailerrean gauzain lanean aritu zen jubilatuta arte. Hiruretan izan zen estimatua.
- Zintzoa, familia girokoa eta sinesmenekoa zen. 1970ean "Bar Mendi Bide" ireki zuen bere seme-entzako. Josek egindako tortilalc gogoratzen dituenik ere bada oraindik. Bezero asko izan zituzten eta ezagunak izan ziren Jose eta bere familia herrian.
- Gizon atsegina eta hizlaria zen; tabemako bezerekin makina bat tertulia izandakoa. Gizon borondatetsu honek gogoko zuen pasiarak ematea eta kartetan jolastea.
- 1974ko aztarnaren 6an hil zen, 68 urterekin.

Juanito Gorostiza

Libe Av't'ieict

Libe
1—Arrieta elgoibartarrak 26 urte ditu. Duela 3 urte Manchesterrera (Ingalaterra) joan zen lan bila eta gaur egun multinazional batean lanean ari dela aipatu digu, "cuentas a cobrar" deritzon sailean ari naiz lanean; Italia, Portugal, Espainia, Frantzia, Benelux eta Irlandako prozesuak gainbegiratzen ditut. Euskal Herrian egotea nahiago nuke, baina hementxe aurkitu nuen lanean hasteko aukera eta oraingoz gustura nago. Lehenago ere egona nintzen hemen praktikak egiten eta lekua ezagutzen nuenez, ez nuen bertako bizimodura ohitzeko arazo larregerik izan". Hala ere, Elgoibarko familiaz eta lagunetaz uneoro akordatzen naiz, eta baita jantzi ere". Elgoibarrera urtean bi edo hiru aldiz itzultzen dela aipatu digu. Ingelesezt hitz egitea ez dela arazoa izan esan digu, "ingelesez ongi moldatzen naiz, baina euskaraz hitz egiteko aukerarik ez dautkat. Getxoko neska batek egiten du lan nirekin, baina ez daki euskaraz. Lagunak elkartu eta janariak prestatzea dela bere zaletasunetako bat aipatu digu, "txandaka lagunenetxera joaten gara eta kalera irten baino lehenago era guztietako janariak prestatzen ditugu, momentu honetan paellak prestatzea da nire espezialitateetee.

ner
illano EXP2E^a
bidaia agentziak
babestutako atala
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

r
Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Mu_guruza, 2 - Tel: 943 74 00 15

BUKATU
18
B.O.D.C.P.
leM1401, 1^a101 rS. epe.p.
Olaso industrialclea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

ITZALA
Edergintza
Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak
Masajea
Sauna
Solariuma
San Frantzisko, 49 - lesk.
Tel. 943 74 43 03



Aste honetako erretratu zaharra **Juanito Gorostizak** laga digu. 1947. urtean ateratako argazkia da, kintoen despedida egin zuten egunekoa, hain zuzen ere. Juanitok azaldu digunez, "sasoe hartan afan haundixa zauan soldadutzara jun aurretik koadrilakuekin despedidak eitzeko, ohitxura bat

zan. Guk "Bar Itziartana" jatetxian (Gaur egun Gabi jatetxea dagoen lekuan) ein genduan bazkarixa eta ederki pasa genduan eguna soinu eta guzti".

Honako hauek dira argazkian agertzen direnen izen-abizenak:

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: **Jose Zabala Mendizabal, Isabel Ansola (t), J.Mari Mugerza (t), Klara Begiristain, Roke Gabilondo (t), Maria Galdos (t), Patxi Igartua** eta **Jose Zabala Juaristi**.

Makurtuta, ezkerretik hasita: **Antonio Regil, Juanito Gorostiza, Javier Zengotita, Jesus Oria (t)** (itziartarra) eta **Rufino San Martin**.

• Bkloturisten irteera martxoaren 26an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 19an, izango da 12. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egingo duten itzulia: Deba, Mutriku, Ondami, Lekeitio, Milloi, Markina, Etxeba-

San Migel eta Elgoibar. Guztira 66 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

• Igeriketa ikastaroak 011aizaga Kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroak haur eta helduei zuzenduta daude eta Olaizaga Kiroldegian, apirilaren 3an hasiko dira. Izena emateko epea martxoaren 30ean, ostegunean, bukatuko da. Informazio gehiago jasotzeko Kiroldegira jo edo 943 74 44 15 telefonora hots egin.

• Elgoibarko judoek emaitza onak lortu dituzte Calahorra Nazioarteko 2. torneoan

Joan den zapatuan, hilaren 18an, nazioarteko judo-tomeoa jokatu zen Calahorra Teresianas kiroldegian. Torneo hau behe mailetakoko judoek zuzenduta dago eta Elgoibarko Ibai Kirol Eficarteak bere taldea eraman zuen Errioxara. Hona hemen emaitzak: Aitor Gonzalez (zilarra), Jon Ander Pascual (brontzea), Unai Fernandez (brontzea) eta Amaia zabaleta (brontzea).

Ana Estevez, Maria Idiakez, Josu Rodriguez, Jokin Aizpitarte eta Ekhi Unanuek 4. postua lortu zuten euren kategorian. Aipagarria da partehartzaile kopurua oso handia izan zela, 300 judokatik gora izan baitziren. Ibai Elkartearen helburua martxoaren 26an Donostian jokatu den Gipuzkoako Txapelketako finalak prestatzea zen.

Egoitz Morak urrezko domina bi lortu ditu Holandan Sambo eta Judo modalitateetan irabazi zituen dominak

Egoitz Mora Ulaziak urrezko domina bi lortu ditu Holandako Nazioarteko Txapelketetan. Txapelketak martxoaren 16tik 19ra bitartean jokatu dira, eta Egoitzek Euskadiko selekzioarekin hartu zuen parte Sambo eta Judo modalitateetan. Sambo judoaren oso antzeko kirola da, baina honako hau zen Egoitzen lehenengo lehiaketa, eta oso ondo aprobetxatu zituen judoko ezagupenak lehiakideei irabazteko. Izan ere, sanbolariak oso arriskutsuak dira lurreko borrokaldietan. Beraz, judoek tente egindako borroka-saioa aprobetxatu behar izaten dute sanbolariari irabazteko. Egoitzek senior mailan hartu zuen parte, 87 kg-tik beherako kategorian hain zuzen ere. Hortaz, urrezko domina meritu handikoa dela esan dezakegu inolako beldunik gabe, Egoitz junior mailako lehen urtekoa delako berez.

Hurrengo egunean, larunbatean, Egoitzek Judoan hartu zuen parte, senior kategorian. Lehiakide guztiei irabazi zien berriz ere urrezko domina lor-



Apirilaren 20tik 24ra Txekoslovakian jokatu den Europako Txapelketa prestatzera joan zen Egoitz Holandara.

tuz. Txapelketa garrantzitsu horretan herrialde askotako judoek eta sanbolariak hartu zuten parte: euskaldunetz gain, Holanda, Errusia, Lituania eta Belgikakoek hain zuzen ere. Egoitz Europako txapelketa prestatzera joan zen Holandara. Europako Txapelketa apirilaren 20tik 24ra bitartean jokatu da Txekoslovakian. Baina, aurrez Espainiako judo selekzioarekin joango da Fuengirolara, eta han apirilaren 14tik 19ra bitartean egongo da konzentratuta.



Herriko 16 emakume izan dira 11. Lilathoian

Igandean, hilak 19, Lilathoian 1 I. edizioa izan zen Donostiako kaleetan zehar. Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatzen da lasterketa herrikoi hau. Bertan, emakumeek bakarrik har dezakete parte eta emakumeen artean kirolzaletasuna bultzatzea da helburua nagusia. Aurten adin guztietako 400 korrikalari inguru bildu dira eta ohi bezala, hainbat emakume elgoibartarrek hartu dute parte, 16 korrikalarik hain zuzen.

Urtubia-Altzibar eta Xabler-Jullan bikoteak Sallobenteko Pilota Txapelketako irabazleak

Altzibarrek 1. mailan eta Xabierrek 2. mailan pilotari onenaren saria jaso zuten

Sallobente Elkarteak Artazo pilotari zenaren omenez urtero antolatzen du eskuz binakako txapelketa. Finalak San Jose egunaren bueltan jokatu dira eta aurten ere, zapatuan, hilaren I 8an, jokatu ziren partidua Sallobenteko frontoian. Lehenik, bigarren mailako finala jokatu zen. Bertan, Xabier eta Juhan "Arma-xio" aita-seekek 22 eta 7 irabazi zieten Angel eta Eneko aita-serneek osatutako bikoteari. Kategoria honetan Xabier aukeratu zuten pilotari onena. Oncloren, lehen mailako finala jokatu zen. Urtubia eta Altzibar 22 eta 16 nagusitu ziren Agirreheñaren eta Txillarreren aurka. Galtzaileak aurretik joan ziren partidu erdiera arte, baina Altzibarrek eta Urtubiak parti-



Argazkian, lehen eta bigarren mailako txapeldunak, txapeldunordeak eta antolatzaileak ageri dira.

duati buelta eman eta merezitako txapela irabui zuten. Jokalari onenaren saria Altzibarrentzat izan zen.



Jende ugari III. Pilota Egunean

Ikastolako frontoia jendez gainezka egon zen 111. Pilota Egunean. Elgoibarko likastolak antolatzen duen pilota festan, 6 eta 13 urte bitarteko 64 pilotari gaztetxok hartu zuten parte. Neska-mutil gaztetxoaren artean pilota zaletasuna bultzatzeko asmoz sortu zen Pilota Eguna, eta larunbatean ikusitakoaren arabera Elgoibarren harrobi polita dugula argi geratu zen. Tantu harrigarriak eta ederrak ikusteko aukera izan zen eta bildutako jendeak txalo zaparradekin eskertu zuen pilotari gaztetxoaren ahalegina.

bligo Lariz litirIndgariak bigarren urtez, Jarraian irabazi Azpeitiko MIX. San Jose Saria

Iñigo Lariz, 'Elgoibarko Lagun Taldeko' txirrindulariak, bigarren urtez jarraian irabazi du Azpeitiko San Jose txirrindulari proba. Iaz, kadete mailan korritu zuen eta aurten, berriz, junior mailan. Iñigok, eskalatzailer doaiak dituela erakutsi zuen, eta maiclán gora egindako lanari esker lortu zuen garaipena. Itziarko eta Azkarateko gainak lehen postuan pasa ostean, Azkarateko mendatea jaisten 'Kaiku' taldeko txirrindulari bat izan zen Iñigo harrapatu zuen bakarra. Biak batera ailegatu ziren helmugara, eta esprinean elgoibartarra nagusitu zen.



E ril A II '1' Z' A K'

Futbola

Sodupe 1- Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 1- Urola 1 (Neskak)
Elgoibar 3- Usurbil 1 (1. erreg.)
Elgoibar 0 - Antiguoko 0 (Oho. inf.)
Elgoibar 3- Soraluze 1 (2. kad.)
Mondragon 1- Pedrusko 3 (1. erreg.)

Eskubaloia

Pneumax Elg. 23 - Almen Jakion 23 (Jub. mut.)
Tecnomeka Elg. 26 - Hondarribia 21 (Kad. mut.)
IMS Elg. 34-A. Vitoria 15 (Senior nes.)
Llodio 20 - IMH Elg. 26 (Senior mut.)
Amen. Zaraulz 8- Pagoaga Elg. 18 (Kad. nes.)
Gaur Elg. 36 - Arrasate Kirolak 15 (Kad. mut.)
Amen. Zarautz 15- Unceta Elg. 22 (Jub. nes.)

Areto Futbola

Iraurgi 2- Zur Ta Lur 12 (Autonom.)
Gure Txokoa 1- Zur Ta Lur (1. maila)

Esku pilota

Debabarreneko Txapelketa

Euskal jolas (Deba) 10 - Lagunak 22 (Kad.)
Euskal jolas (Doba) 22 - Lagunak 14 (Nag.)

Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIke jekalari erregularrena 99/00
JOKALARIA PUNTUAK

1- Aranberri	33
2- Zutaika	28
3- Loren	27
4- Castro	27
5- Castillo	26
6- Polo	21
7- Alberdi	29
8- Baqu6	2111
9- Ibarluz	19
10- Bravo	16
11- Diaz	15
12- Leonardo	12
13- Mikel	12
14- Ruiz	8
15- Guarrotxena	6
16- Caro	7
17- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
19- Txasio	4
20- Edu	4
21- Fernandez	2

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 24
22:10 Zur Ta Lur- Bar Iratxo {1. maila}
23:10 Zur Ta Lur- Cabo Rojo (Autonom.)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 25
17:00 Haundi - Bergara (3. maila)
Igandea, 26
12:00 Elgoibar - Marianistas (Jub. E.L.)

Eskubaloia, Kiroldecijar

Larunbata, 25
16:00 Unceta Elg.- Basauri (Jub. nes.)
17:30 Pagoaga Elg.- Basauri (Kad. nes.)
Igandea, 26
12:00 IMH Elg.- Deusto (Sen. mut.)

R

2 1.11

Blues sentimendua eta rock gogorra

Timmy Page gitarjolearen eskutik **U** rockaren norabidea erabat aldatu zuen taldea sortu zen 1968an: Led Zeppelin. Pagekin batera, Robert Plantek (ahotsa), Jhon Paul Jonesek (baxua) eta John Bonharnak (bateria) musika egiteko bide berriak ireki zituzten. Ordura arte Jimmy Hendrixek soilik jakin ahal izan zuen psikodelia, bluesa eta rock gogorra hain ongi nahasten.

Britaniarrek 1969an argitaratu zuten "Led Zeppelin II", taldearen bigarren diskoa. "Whole Lotta Love"eko gitarrak riff indartsuek eta Planten oihu erotikoez atmosfera berezi batean murgiltzen dute entzulea. "Thank you" izango da, aagian, lan honetako abesti psikodelikoena eta "Bring it on me", berriz, blueseroena. Azken horren hasiera eta amaierako aho-soinuak Sonny Boy Williamson bluesmana dakarkiguz gogora. "Deep Purple" en "The mule": abestiarekin soilik parekatu daiteke "Moby Dick", bertan Bonharnak historiako batera solorik ezagunenetakoa interpretatu zuen. Oinarrian blues sentimenduz rock gogorra egiten zuen taldea zen Led Zeppelin. Ezbairik gabe, oraindik rockzale guztion bihotzean dagoen talde bikaina. "Led Zeppelin II" laukote britaniararen diskorik esanguratsuenetakoa dugu.

Ion Gurrutxaga Arakistain



Ongarri Zine Klubaren "Bestelako zinea. 2" zikloa hasi da

Ziklo berri honetan musikak eta istorio afaiek hartuko dute protagonismoa

Atzo eskainitako pelikularekin, "Et caso Winslow" izenburukoarekin, Ongarri Zine Klubaren "Bestelako zinea 2" zikloa hasi da. Ziklo berri honetan, oraingoz beste lau pelikula emango dituzte Ongarriko kideek ostegunero gaueko 21:30ean. *kula hauek bi ildoren ingurukoak izango dira. Lehenengo pelikuletan dokumentala eta musika uztartuko dira eta ondorengoek, istorio koloretsuak, alaiak, agertuko dituzte.*




Alain Berliner zuzendariaren "Mi vida en rosa", ziklo honetako filme alaienetako bat da.

"El caso Winslow" pelikula "Bestelako zinea. I" zikloa itxi zuen. Izan ere, filme hau ziklo horretan eskaini zen "El coronel no tiene quien le escriba" pelikularekin lotuta dago. Filme hau eleberri baten egokitzapena zen, eta "El caso Winslow", aldiz, antzezlan batena.

Ziklo berri honetan eman goren diren bi pelikulek musika edukiko dute ardatz nagusia. Era berean, bai "Buena Vista social club"ek eta baita "The year of the horse" pelikulak ere, dokumental jeneroa jorratuko dute. Biek musiko batzuen jarraipena egiten dute, diskoaren grabazioan edo kontzertuetan. Lehenengoan, "Buena Vista social club" diskoa grabatu zutenak dira protagonista eta Estatu Batuetako pelikulan, aldiz, Neil Young musikari handia.

Oraingoz Ioturik dauden beste bi pelikulak Alain Berlinerren "Mi vida en rosa" eta "El silencio" irandarra dira. "Mi vida en rosa" filmeak Cannesen eta Sarajevon sariak eskuratu zituen eta "El silencio"k 1998. urteko Veneciako Senatuaren saria. Bi pelikula hauek, "Bestelako zinea. 1" zikloan pelikula batzuek erakusten zuten iluntasunaren edo errealismo gordinaren aurkakoak dira, istorio koloretsuak eta baikorrak azaltzen dituztelako.



Neil Young kantari mitikoaren kontzertua erakusten du "Year of the horse" pelikulak.

Zinea Gaztetxean

Bestalde, pelikulen emankizunari berrekin diote Gaztetxean. Momentuz, lau pelikulako egitaraua prestatu dute Gazte Asanbladako kideek. Joan den astean "Gabbeh" pelikula irandarra eskaini ostean, igande honetan, martxoaren 26an "Ghandi" pelikula famatua izango da ikusgai. Richard Attenborough zuzendariak Indiako bakezale independentistaren bizitza jaso zuen bere lan honetan. Hurrengo astean, apirilaren 2an, Errusiako filme baten txanda izango da "V6r" ("El ladron") pelikularena, hain zuzen ere, eta ondorengo domekan, apirilaren 9an, Jean Claude Lauson "Leolo"rena.



1 1 1 1 1 1 | ikasketak

1 - Nolatan erabaki zenuen ikasketa hauek egitea?

Gauza bat klaru nakan, ikasketak amaitutakuan ez nabala nahi ofizina baten geldu sartuta egotia. Orduan, kanpuan ibiltzeko zeozer ikastia pentsatu naban. Topografiak barruan eitxeko gauzak badakaz, behin neurrixak hartu eta gero mapak eitxia adibidez, baina lan asko kanpuan eitxen dia. Gainera, gustatzen jatan gauzia dalako aukeratu naban.

2 - Topografiako karrera nahiko ezezaguna da jendearentzat. Zertan datza?

Lagunek galdetzen diatenian zer dan topografia, beti esaten diuet kamino izkinetan tripode batzuzkin ikusten dianak diala topografuak. Baina teknikoki azaltzekotan topografuan lana da, neurrixak edo puntu konkretuak hartu bere koordenadekin, eta horretatik abiatuz mapak eitxia, obra batian zenbat lur kendu bihar dan kalkulatzia...

3 - Nolako ikasgaiak daukazue?

Topografia ikasgaian, instrumentuak erabiltzen ikasten dou. Kartografiak mapak eitxen erakusten digute eta dibujoko asignaturan mapa horretan planuak zela ein ikasten dou. Beste asignaturak ingenierixa danetan ematen dianak dia: matematika, fisika, informatika... Gero praktikak ere eukitzen ditzugu. Teorian ikasten doguna praktikan ipintzen dou klase hauetan.

5- Makina bereziekin neurtzen dira terenoak, ezta?

Bi makina klase daoz. Bata teodolito izena dakana, horrekin anguluak eta distantziak kalkulaten dia. Bestia, topografia mociernorako, GPS deitzen dana, honek koordenada zehatzak ematen

ten ditzu. GPS makina bakoitzak 6 milioi pasa balio ditzu. Gure fakultadian bazauan bat, baina efekto 2000 dalakuakin estropeau ein zan. Enpresa pribau batetik etorri zian funtzionamendua esplikatzera, baina guk topografia tradizionalako makinak erabiltzen ditzugu.

5- Teknologia berriek asko aldatuko al dute topografoen lana?


Baietz uste dot. Topografia tradizionalako metoduekin, kanpuan lan eitxeko hiru edo lau pertsonako talde bat bihar da eta gainera muga asko dakaz. Adibidez, gabaz ezin da lan ein, eurixakin instrumentuak estropeau eitxen dia... GPS berri honekin pertsona batek bakarrik ein leike lan dana, gainera sateliten bidez dabilenez, bakoitzak nahi dabanian ein leikez neurketak, baitxa gabaz ere. Gasteizen tokau jakun praktiketako egun baten goizeko bederatziretan edurra botatzen eotia, baina holakueta aterkixekin mol-datzen gera. Hala ere, euri asko badihardu ez gera urtetzen, makinak estropeatzeko arrisku haundixaua daolako.

6- Zein irteera dauzka lan mundura begira topografia ikasten duen batek?

Topografia ikasten daban batek lanerako bi opzio ditzu: arkitektoen batekin sozio ein edo berantz lan eitxia da bata. Bestia, berrix, bi edo hiru pertsonan artian enpresatxo bat montatzia, neurrixak hartzera eta planuak eitxera dedikatzen dana. Neri nere kontura ibiltzia gustauko jatan, libertade gehixaokin lan eitxeko.

7 - Zenbat urteko karrera da?

Karrera berez 3 urtekua da, baina medixiak 6 urtian amaitzen dau. Nahiko karrera zaila da, adibidez, beste unibersidade batzuetan matematikako asignaturan 2 urtian ematen dana gurian urte bakar baten ikasi bihar izaten dou. Lehenengo mailan 18, 19 edo 20 urteko jendia dao, bigarrenian 23 eta 24 urtekuak ere badaoz eta hirugarrenian 30 urteko ikasiak ere ikusten dia. Nibel altua dao ikasketetan.



18 URTE

TOPOGRAFIA	UBI	LH
MERIDA (EXTREMADURA)	5,12	
JAEN	5	5
KANARIA HANDIKO		
LAS PALMAS	6,53	5,72
MIERES (OVIEDO)	5,8	5
GASTEIZ- EHU	5,6	5,68
KATALUNIako POLITEKNIKOA		
(BARTZELONA)	5,96	6,83
MADRILGO POLITEKNIKOA	5,62	6,3
VALENTZIako POLITEKNIKOA	5,86	6,19
AVILA (SALAMANCA)	5,05	5,5



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
 Odol Emaileak .. 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
 PESA (Eibar) . . 902 10 12 10
 Taxi geitokia . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158
 Mendaroko Udala... 943 756100
 Ongizate zerbitzua... 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa.. .. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
 Zaharren Diltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . 943 74 21 41
 HHI (EPA) . . 943 74 08 80
 Herri Eskola . . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka). 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia .. 943 74 34 74

A G

N D A

28

asteartea

16:30 MISIOA-GARIZUMA
 2000 PARROKIAN
 Antolatzailea: Donostiako
 elizbarrutia (euskaraz)

19:00 HITZALDIA
 Gaia: 2-6 urteko haurren
 ezaugarriak. Gurasoen
 jarrerak eguneroko bizitzan
 Hizlaria: Alvaro Beiharan,
 pedagogo eta publizitate
 terapeuta
 Herri Eskolako G.E

20:00 MISIOA-GARIZUMA
 2000 PARROKIAN
 Antolatzailea: Donostiako
 elizbarrutia (gaztelera)

30

osteguna

21:30 ZINE KLUBA
 "Buena vista social club"

31

ostirala

19:30 BERGARAKO
 MUSIKA ESKOLAREN
 KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

22:15 ZINEA
 "Secuestrando a la seflorita
 Tingle"

24

ostirala

19:00 MARGO
 ERAKUSKETAREN
 INAUGURAZIOA
 J. Agustin Larrañagaren obra
 Kultur Etxean
 Apirilaren 9ra arte

22:15 ZINEA
 "Las cenizas de Angela"

22:30 J.MARI
 KARRERE IPUIN
 KONTALARIA
 "Kondoi bakoitzak bere
 historia du"
 J. Mari Karrere
 Gaztetxean

2

larunata

12:00 ZAZPIKI
 IRRATIAREN BATZARRA
 Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
 "Las cenizas de Angela"

2G

igandea

10:00 BIZIKLETA
 IRTEERA SAN
 LORENTZORA
 Eskolako haur eta
 gurasoentzat
 Antolatzailea: Herri
 Eskolako Gurasoen
 Elkarte

10:00 ZIKLOTURISTEN
 IRTEERA
 Txankakua zubitik
 Antolatzailea: Elgoibarko
 Lagun Taldea

19:00 ZINEA
 "Gandhi"
 Gaztetxean

19:30-22:15 ZINEA
 "Las cenizas de Angela"

27

astelehena

22:15 ZINEA
 "Las cenizas de Angela"

• • • III
• • • • 1 1
RI • • • 11 111

ZINEA



cenkas de Angela"

1935. Frank McCourt, 5 urteko mutikoa da. Bizitzako lehen urteak New York-en egin ostean, Irlandara, joango da bizitzera. Une gogonak biziko ditu bertan, batetik, aita alkoholikoa du eta langabezian dago, bestetik, berriz, bere bi anaiak hil egingo dira. Hori gutxi balitz, aitak etxetik alde egingo du, eta ez da inoiz itzuliko. Frankek eta bere amak pobreziarik gordinena eza-gutuko dute. Franken asmo bakarra dirua aurrestu eta Estatu Batuetara itzultzea da.

• • R ■ RI • III IN • • • • • ■ RI
RiII 111 • II ■ • •

• Xilografia ikastaroa Egur Arte Tailerraren eskutik

Egur Arte Tailerrak 30 orduko xilografia ikastaroa antolatu du. Elgoibarko Udalak diruz lagundutako ikastaroa martxoaren 27an hasi eta apirilaren 14ra arte luzatuko da. Ordutegiari dagokionez, arratsaldeko 18:30etik 20:30era izango dira klaseak. Izena emateko ordutegia, berriz, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izango da Ubitarte Plazan (Iehen ikastola izandakoa).

• Gurasoen formazio tailerrak Ikastolan

Hirugarren urtez eta drogomenpekotasunaren prebentziorako 'Hordago' programaren barruan, Udal Ongizate sailaren koordinaziopean burutuko dira aurtengo gurasoen formazio tailerrak: DBH1: martxoaren 28an DBH2: martxoaren 30ean DBH3 eta 4: martxoaren 27an eta apirilaren 4an eta 11n. Tailer horiek Ikastolako ikusentzunezko gelan izango dira iluntzeko 18:30etik 20:30era, eta Edex kolektiboko Hilario Garrudok zuzenduko ditu.

• 'Urgazi Taideaki bokindresak behar ditu Duatioian lagundizeko

Datorren apirilaren leian, larunbatean, Elgoibarko Duatloia 9. edizioa izango dela-eta, 'Urgazi Triatloi Taldetik' adierazi digutenez, proba antolatzeko bolondres beharrezan daude. Zirkuitoa presatatu eta bidegurutzetan eta kaleetan segurtasun lanak betetzeko behar dute laguntza Urgazikoek. Hori dela-eta laguntzeko prest dauden elgoibartarrei luzatu nahi dieite dei edo eskaera hau. Laguntza emateko interesatuek 943 74 29 73 telefonora dei egin dezakete (14:30etik 16:00etara) edo bestela Salegi gozodendara joan arratsaldez.



• Misioa-Garizuma 2000 parrokiari

Jubileu Urte santua dela-eta, Donostiako elizbanutiak Misioa-Garizuma 2.000 antolatu du "Jesukristorekin hobeto" lemapean. Misio ekintza hau San Bartolome parrokiari ere izango da. Datorren asteartean, martxoaren 28an, hasi eta ostiralera arte iraungo du. Ekitaldia-zen zuzendaria Arantzazuko Santutegiko Iñaki Beristain (ETBko "Egi Bidean") erlijio saioko arduraduna) frantziskotarra izango da. Arratsaldeko 16:30ean euskaraz entzun ahal izango da eta iluntzeko 20:00etan, berriz, gaztelaz.

Jr1 131.111 [1(

FARMAZIAK

- | | Egunez | Gauez |
|----|---|-------|
| 25 | Etxeberria* Zabaleta (Santa Ana kalean) | |
| 26 | Etxeberria* Zabaleta (Santa Ana kalean) | |
| 27 | Eixeberria Etxeberria (Errosario kalean) | |
| 28 | Escala Escala | |
| 29 | Bidasolo Bidasolo | |
| 30 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 31 | Fernandez Fernandez *(eguerdiko 2ak arte) | |
- ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kafearren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

26 igandea Doña Mercedes

11 • R 111 • MMIMMER ■ 11 11 11 • • • • • III • •

Mg-4

GA e k



Ihima Vista Social Cluir

Dokumental onenari ematen zaion Oscarretarako izendatu dute aurtengo Kubatar musikari zaharrek (Ibraim Ferrer, Segundo Compay...) **diskoa grabatu zuten La Habanan.** "Buena Vista Social Club" izena jarri zioten, eta itzelezko arrakasta izan zuen, milioika ale saldu baitziren. Ondoren, Win Wenders zuzendariak musikarien bizimodua eta beraiekin izandako elkarrizketak filmatu zituen, baita New Yorken eta Amsterdam-en eman zituzten kontzertuak ere.

Zuzendaria: Win Wenders.
Antzezleak: Kubatar musikariak.

71 101
C= 3 • P=4

III ■ M III M - III • • • • • III • • • • •

11

Lana

• ESKAINIZA •

- Esperientziadun pintoreak behar dira. tr 606 43 11 20/943 74 15 52
- Oraiko tabernan kamareroa eta sukaldarako laguntzailea behar dira, Ez da beharrezkoa esperientzia izatea. rr 943 74 42 65

Pertsona arduratsua behar da 2 haur zaintzeko. Sukaldean moldatzen jakitea komeni da. tr 943 74 35 62 (9:(10-13:00 / 17:00-20:00 Itziar)

• ESKAERA •

- Garbiketarako egingo nituzke tabernetan, etxeetan edo tailerretan. tr 943 74 40 57
- Goizetan lan egiteko prest nagoen mutila naiz. Astelehenetik ostiralera. Edozein lanetan. rr 943 74 44 63
- Neska eskaintzen da goizetan lan egiteko. tr 943 74 29 73
- Esperientziadun neska eskaintzen da edadetuak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. 609 41 73 52 (Rosa)
- Esperientziadun neska eskaintzen da garbiketara lan egiteko (tabernak, lokalak, etxeak...) ✓ 943 17 29 20 (Maite)

Etxebizitzak

- Etxebizitza baten bila gabiltza. Ahal bada 2 edo 3 logelakoa. tr 600 085 886
- *Apartamentua salgai Dehan, Itsasbegi kalean. Garajea dauka. 17 943 19 23 48
- Apartamentua alokairuan Bentdormen. a 943 74 06 28/ 943 76 63 21
- Geta bat daukat alokatzeko. tr 943 74 18 81
- Konpartitzeko pisu bat edo logela hartuko nuke alokairuan. tr 667 91 22 51
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren, 3 gela edo 2 logela eta egongela. Altzaririk gabe. • 696 47 16 95
- *Ikasle pisua osatzeko jendea behar da, 2 logela libre. 12 943 62 53 77 (Fernando)

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Salerosketak

- 40 urteko josteko makina salgai, Egoera onean. c 943 74 27 79
- Ordenagailuarentzat mahaia salgai. Erabili gabe. • tr 943 74 32 98
- Ohea egiten den 90cm zabaleko sofa salgai. Egoera onean. Berriberria. • n 943 74 21 68

Garajeak

- Garajea alokatuko nuke Ikastola ondoan. n • 943 74 28 24
- Garajea salgai Pista Beltzean. tr 943 74 00 39

Bestelakoak

- Bidaiarako poltsa galdu dut Merkatu Plazatik Plaza Txikira bitartean. Barruan arropa dago. tr 943 74 03 65
- Zilarrezko erlojua galdu dut, anbulategi ondoan. Topatu duenak eraman dezala mesedez udaltzaingora.
- Gaztetxerako aulkiak eta mahaia behar dira. Soberan izan eta ematea nahi baldin baduzue deitu. Jasotzera pasako gara. rr 943 74 35 72

Agurrak

- ♦ Zorionak Iruue Sorgintxori, martxoaren 21ean 12 urte bete tuelako. Pertsona misteriosuen partez.
- Zorionak Unai Bilbaori, martxoaren 20an urteak bete zituelako. Ikastolako 3. mailako eta bereziki Angelen eta Danelen partez.
- Zorionak Elorri Trustari, martxoaren 16an urteak bete zituelako. Sararen eta Marinaren partez.
- Zorionak Ixaso Egañari, martxoaren 16an urteak bete zituelako. Sararen eta Marinaren partez.
- Zorionak Ines Gabilondori, martxoaren 25ean 10 urte beteko dituelako. Estibalizen, Nadiaren, Itsasoren eta Ainhoaren partez.
- Zorionak Elisabeth Aranzabali, martxoaren 15ean urteak bete zituelako. Estibalizen partez. Bi muxu handi. Oso goxoa zegoen pastela. Eskerrik asko.
- Zorionak Esther eta Asier! Prest al zaudete larunbateko giroari aurre egiteko? Beno, zuek lasai, geroko juergan pentsatzean urduritasunak Guassean geldituko dira-eta? Osaba-4zeben, lehengusuen eta amaren partez.
- Zorionak Isaak Bilbatuari, hilaren 21ean 10 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki Estherren partez.



- Zorionak Joana Mareilla Plazari, atzo, martxoak 23, 4 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki izeba Amaiaren partez.

- ♦ Judith! Judith: Judith: Ahaztuko zitzatgulaokan? Ba guztion partez zorionak eta muxu handi bat.



- Zorionak Estherri eta Asierri, zuen ezkontza bezperan. Familiaren partez, oso zoriontsuak izan zaitezte.



- Zorionak Iñakiri, martxoaren 27an 6 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki Amaiaren, Aitorren eta Janolen partez.




- Zorionak Leire? Zeu zara etxeko sirena-txoa. Familiaren eta bereziki Gorkaren partez.



- Zorionak Rouse, martxoaren 22an 24 urte bete zituelako. Koadrilaren eta Greken partez. Bihar zure bizitza inauteri bihurtuko da.



- Zorionak Iruue Martinezi, hilaren 21ean 12 urte bete zituelako. Ahizparen eta gurasoen partez. Zorionak baita erelagunen partez.



- Zorionak Iosu Atxari, bihar, hilako 25, 7 urte beteko dituelako. Etxeko eta bereziki anaia Ekatzten partez.

- Zorionak Iriari, gaur, hilak 24, 4 urte bete dituelako. Gurasoen partez muxu pototo bat.



- Zorionak Maialeni, martxoaren 28an 10 urte beteko dituelako. Lehengusulehengusinen eta nebaren partez.



- Zorionak Nahikareri, martxoaren 25ean 4 urte beteko dituelako. Familiaren partez.





GARB

EDERGINTZA

*cZwie azala 6.41no ege2 9eYtua5akolik ez duzu.
cZtere 6ixitzart zeit'u taotoitzen zaUt.ten
lalun zintzo 6at da.
Seutk zaintzert zaitu eta
dialtzaun rtazerrak oozatu autzten. dizkizu.
9ZAIL zaitez adeitsuca 149un honekin.*

GORPUTZ OSOKO TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
AURPEGIKO TRATAMENDUAK eta MAKILAJEA
GORPUTZ OSOKO DEPILAZIOAK HOTZ eta 13EROAN
SOLARIUMEKO 10 SESIOREICIN 1 DOHAINIK

P. M. Urruzuno, 27 - Tel. 943 74 31 32



ZEZEN-BIDE

ALITO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi

eta motorrentzako

gida-baimenak



676j (7, 41 Gr71:FJ.b..
Gazr.n Tya rff:r((/ur:fr?rr



GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
z' 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
Ir 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
"a" 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
Ir 943 74 03 96

10111WA\i_BUMK<

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
T 943 74 30 94

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
u" 943 74 17 61
689 04 92 06

JAVI

Erretxindi, 1
tr 608 77 29 32

ONGI

Urasandi, 8
Tr 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
T 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
943 75 50 62
z' 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
1-2 943 74 07 89
72 608 14 30 40

JESUS M-9 GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
a 943 74 45 99

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
"w 943 74 04 40
w 607 74 04 40

EKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
12. 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
943 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
13 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12-14
"&" 943 74 13 76

- /W, 111CJE

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
943 74 34 18

dilami4mjni...

ASKETA

Osio, 7 DEBA 4w9(K714/)
z' 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
*a 943 74 29 87
689 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
w 630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97